

## IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

<b>Titulua:</b> ERIZAINZAKO GRADUA <b>Ikasgia:</b> Erizaintzaren oinarri teorikoak	<b>Mota:</b> Erizaintzako Zientziak <b>Eskolen kronograma:</b> 2. lauhilekoa
<b>Kodea:</b> 26440	<b>Hizkuntza:</b> Euskara/Gaztelania
<b>Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua</b> <p>Ikasgai honek ikasleari diziplina honen muina den erizaintza-zainketa ulertzeko bidea eskaintzen dio, erizaintzaren historian aldaketak markatzen dituzten eta hura lanbide eta diziplina gisa finkatzen lagundu zuten faktore sozialak aztertuz.</p> <p>Irakasgai espezifiko honek ikasleek laneko esparrua zein den ikus dezaten laguntzen du, gaur egungo gizarteko zainketa-beharrei erantzuteko.</p>	<b>ECTS kredituak:</b> 6 <b>Kurtsoa:</b> 1. maila
<b>Sartzeko eskakizunak/gomendioak</b> <p>Ez dago</p>	

### IRAKASLEAK

### Tel.

### Helbide elektronikoa

IRAKASLEAK	Tel.	Helbide elektronikoa
<b>Irakasgaiaren arduraduna:</b> Eva Pereda Pereda	945 219001	<a href="mailto:eva.pereda@ehu.eus">eva.pereda@ehu.eus</a> <a href="mailto:eva.peredapereda@osakidetza.eus">eva.peredapereda@osakidetza.eus</a>
<b>Euskarazko lerroko irakasleak:</b> Irati Padura Blanco Ainhoa Ulibarri Ochoa		<a href="mailto:iratipadura@gmail.com">iratipadura@gmail.com</a> <a href="mailto:ainhoa_ulibarri@ehu.eus">ainhoa_ulibarri@ehu.eus</a>

## GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Zainketa jardueraren bilakaera historikoa azaltzen duten faktore soziokulturalak identifikatzea, eta lanbideak eta diziplinak eginiko urratsekin lotzea.
- G2. Erizaintza teorien eta ereduaren konstruktuek eta kontzeptuek aztertzea, ikuspegi profesionalaren eta diziplinarraren oinarria ezarrita.
- G3. Pertsonen ongizatea sustatzen duten eta zainketa integralaren oinarrian dauden printzipioak deskribatzea.

## ZEHARKAKO GAITASUNAK

- ZG. Komunikazio idatzia: era argi, ordenatu eta sintetizatuan komunikatzea, arauen arabera (lexikoak, semantikoak, gramatikalak...) idatzitako testu akademiko egituratuaren bidez.

## IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1. Osasun sistemako erizaintzako arreta aztertzen du.
- IE2. Garai historikoen arteko zainketen ezaugarriak alderatzen ditu.
- IE3. Lanbidearen eta diziplinaren garapenerako lagungarri diren faktoreak aztertzen ditu.
- IE4. Erizaintzako teoria ezberdinen konstruktuek azaldu eta bereizten ditu.
- IE5. Hainbat teoriak eta ereduak erizaintzako arretari egiten dioten ekarpena aztertzen du.
- IE6. Balorazio integrala egiterakoan pertsonaren indibidualtasuna errekonozitzen du.
- IE7. Erabaki profesionalak hartzerakoan nahasten diren balio pertsonalak ebaluatzen ditu.
- IE8. Arau akademikoak betez eta hizkeraren erabilera zuzena eginez idazten du.
- IE9. Gogoetatsu eta errespetuz parte hartzen du eta ikasketarekiko konpromisoa erakusten du.

## EDUKIAK

Gai-zerrendaren antolaketa zehatza ikusteko, eGelan eskuragarri dagoen kronograma kontsultatu.

### 1. UNITATEA: ZAINKETA-PRAKTIKAREN JATORRIA ETA BILAKAERA

- 1.1 Sarrera: osasun arloko profesional ezberdinen irudikapen soziala. Gaixotasunaren eta osasunaren definizioa eta eraikitze soziala.
    - *Ikasgelako praktika 1 (2 ordu): Osasun-lanbideen irudikapen soziala.*  
*Osasunari, gaixotasunari eta bizitza kalitateari buruzko alde zuzeneko ideiak.*
    - *Ikasgelako praktika 2 (ordu bat): Osasun kontzeptuaren autoebaluazioa.*  
*Sintomen pertzepzioa.*
  - 1.2 Zainketaren etxeko garaia.
  - 1.3 Zainketaren bokaziozko garaia.
    - *Ikasgelako praktika 3 (ordu bat): Etxeko garaia eta bokaziozko garaia.*
  - 1.4 Zainketaren garai teknikoa.
    - *Ikasgelako praktika 4 (ordu bat): Garai teknikoa.*
  - 1.5 Zainketen garai profesionala.
    - *Ikasgelako praktika 5 (ordu bat): Garai profesionala.*
  - 1.6 Osasunean eta gaixotasunean bizitzea gaur egungo gizartean.
    - *Ikasgelako praktika 6 (ordu bat): Ospitalizazioa.*
    - *Ikasgelako praktika 7 (ordu bat): Gaixotasun kroniko bat bizitzea. Zaintzaile-figura.*
    - *Ikasgelako praktika 8 (2 ordu): Kode deontologikoa egoeretan aplikatzea.*
1. mintegia (2 ordu): *Elkarrizketen aurkezpena.*

## 2. UNITATEA: ERIZAINZAZIENTZIA ETA -DIZIPLINA

2.1 Jarduera profesionala bideratzen duten erizaintzako paradigmak: kategorizazioaren paradigma, integrazioaren paradigma eta transformazioaren paradigma.

- *Ikasgelako praktika 9 (2 ordu): Kategorizazioaren paradigma, integrazioaren paradigma eta transformazioaren paradigma.*

2.2 Ezagutza eta ezagutza-motak. Zientzia. Ezagutza zientifikoa osatzea. Zientziaren filosofiaren bilakaera eta haren eragina erizaintzan. Diziplinak eta erizaintzako diziplina.

2.3 Iturri teorikoak: beharren teoria; sistemen teoria; estresaren eta egokitzapenaren teoria; giza hazkundearen teoria.

2.4 Florence Nightingale.

- *Ikasgelako praktika 10 (2 ordu): Florence Nightingale figuraren analisia eta bere ekarpenak.*

2.5 Virginia Henderson-en eredu kontzeptuala.

2.6 Autozainketaren teoria: Dorothea Orem.

2.7 Egokitzapenaren eredu kontzeptuala: Callista Roy.

- *Ikasgelako praktika 11 (2 ordu): Henderson-en, Orem-en eta Roy-ren ereduak.*

2.8 Gizaki unitarioaren eredu kontzeptuala: Martha Rogers.

2.9 Gizakiaren bilakaeraren eredu kontzeptuala: Rose Marie Rizzo Parse.

- *Ikasgelako praktika 12 (ordu bat): Gizaki unitarioaren eredu kontzeptuala eta gizakiaren bilakaeraren eredu kontzeptuala.*

2.10 Zainketa transkulturalaren eredu kontzeptuala: Madeleine Leininger.

## 3. UNITATEA: ERIZAINZAKO METODOLOGIAREN HASTAPENAK

3.1 Pertsonaren balorazio integrala. Pertsonarengan eta familiarengan oinarritutako zainketak. NANDA taxonomiaren aurkezpena.

*2. eta 3. mintegiak (4 ordu): Kasu-metodoarekin lan egitea.*

3.2 Rol laborala vs rol profesionala. Ikertzaile rola. Rol aurreratua.

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	ESKOLA TEORIKOEN ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK	IKASGELAKO PRAKTIKA-ORDUAK
1	Irati Padura Blanco	29	2	10
2	Ainhoa Ulibarri Ochoa	20	0	7
3	Irati Padura Blanco	3	4	0
GUZTIRA		52	6	17

## METODOLOGIA

Planteatutako gaitasunak garatzeko, ezagutza metodologia aktiboen bidez eraikiko da, ikaslea ikaskuntza indibidualean eta talde-mailakoan inplikatzeko. Ikasgai honetan, askotariko irakaskuntza-metodologiak erabiltzen dira:

- **Eskola teorikoak:** eskola teorikoak egingo dira eta ikasleen parte-hartzea sustatuko da, aurkeztutako nozioak eztabaidatzeko eta aztertzeko.
- **Ikasgelako praktikak:** eskola teorikoak ikasgelako praktikekin era sekuentzialean tartekatuko dira, jarduera ezberdinak partekatzearen bitartez, erizaintzako diziplinan ezagutzak barneratzeko eta hauen aplikazioa lantzeko.
- **Mintegiak:** ikasgelako eskola teorikoak eta praktikoak mintegiekin osatuko dira, talde txikietan, landutako jardueren emaitzak partekatzeko, ikasleen artean ideiak eta esanahiak trukatzeko eta, horrela, ezagutza argitzen eta finkatzen lagunduko duten aldez aurreko ideiak birplanteatzeko. Ikasketa osatzeko kasu-metodoa aplikatuko da 3. gai-unitatean. Horrek ikaslea egoera erreal baten aurrean jartzen du eta arazo bat argitzen jarraitu beharreko urratsak ezagutu eta era integralean zaintzeko prozesuan erabakiak hartzen laguntzen dio.

Ikasketa aktibo hau osatzeko, ikasle bakoitzak irakasgai honen irakasleari tutoretzak eska dakizkioke. Eskaera hori irakasleari zuzenean kontaktatuz egin diezaioke, posta elektronikoz edo telefonoz.

LAN PRESENTZIALA (75 ORDUAK)		
Eskola teorikoak	Mintegiak	Ikasgelako praktikak
52	6	17

LAN EZ-PRESENTZIALA (75 ORDUAK)		
Gidatutako lana	Bakarkako lana	Talde-lana
30	30	15

GUZTIRA	
ECTS	6
ORDUAK	150

## **EBALUAZIO-SISTEMA**

### **Idatzizko komunikazioa:**

Gaitasun hori titulazioaren ikasgaietan ebaluatzen da irizpide honekin: «idatzizko lan eta ebaluazio-proba guztietan, ortografia eta sintaxi akatsak kopuruaren arabera zigortuko dira; gehienez, 0,5 puntu kenduko dira».

### **OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA**

Ebaluazio jarraituaren modalitateari atxikiz gero, gutxienez eskola teorikoen % 80ra bertaratu behar da, hala nola derrigorrezkoak diren ikasgelako praktiketara (ikusitako ikaslearen gida, eGelan eskuragarri) eta mintegi guztietara. Horrez gain, planifikatutako jarduera guztiak egin behar dira.

Azken kalifikazioa ebaluazio-jarduera ezberdinen bitartez lortutako noten haztapenetik aterako da. Azken kalifikazioa lortzeko beharrezkoa da gaitasun espezifiko guztiak eta zeharkako gaitasuna 5 edo nota altuagorekin

gainditzea. Ebaluazio-jarduera guztiek ikaslearen gidan jasota dauden errubrika bat izango dute lagun, haiei dagozkien adierazleekin eta deskriptoreekin (eGelan eskuragarri).

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1 / ZG	IE1, IE2, IE3, IE9 / IE8	Eskola teorikoak, ikasgelako praktikak, mintegiak	Portafolioa Ikasgelako praktiketan eta mintegietan parte-hartzea (1. gai-unitatea)	% 30 + %10 ZG
G2	IE4, IE5, IE9	Eskola teorikoak, ikasgelako praktikak	Proba idatzia: paradigmatik; zientzia eta erizaintzako diziplina; erizaintzako teoriak Ikasgelako praktiketan parte-hartzea (2. gai-unitatea)	% 40
G3	IE6, IE7, IE9	Eskola teorikoak, mintegiak	Banakako edo talde lana: Kasu-metodoaren txostena Osoko-bilkuretan parte-hartzea (3. gai-unitatea)	% 20

\*Oharra: ikasleak 1. unitateko portafolioa aurkeztu ondoren, ezin izango dio azken ebaluazio-sistemari atxiki, ezta deialdiari uko egin ere.

### **EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA**

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAA n argitaratutako ebaluazio-sistemen 8. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

### **OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA**

Azken ebaluazioa ebaluazio jarraituaren salbuespena da ebaluazio jarraitua egin ezin duten ikasleentzat. Justifikatutako arrazoiak direla-eta ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu ezin duten ikasleek amaierako proba bakarra eskatu ahaliko dute, zeinak ikasgaiaren notaren % 100 balioko duen. Hauek dira justifikatutako arrazoi horiek: lan-arrazoiak, genero indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, harrera edo hiru urtetik beherako seme-alabak norbere ardurapean izatea, mendekotasuna duen senidea zaintzea, ikasleak % 33ko ezintasuna edo handiagoa izatea, goi-mailako kirolaria izatea, bidaiatzea edo dedikazio handia eskatzen duten jardura artistikoetan/kulturaletan aritzea, beste goi-mailako ikasketa batzuekin bateratzea, kargu politikoekin bateratzea, jardura sindikalak izatea, ikasleen ordezkartze aritzea, GKEak edo beste batzuk.

Ebaluazio-sistema honetan parte hartzeko, ikasle bakoitzak ebaluazio jarraituko sistemari uko egiten diola adierazteko idazki bat aurkeztuko dio irakasgaiaren irakasle arduradunari, oraingo ikasturteko irakasgaiari dagokion lauhilekoaren 9. astea baino lehen.

Azken probak portfolio landua, planifikatutako jardueren ebazpenak, kasu-metodoaren txostena eta azterketa-garaian 2. unitatearen azterketa idatzia hartuko ditu kontuan.

Kasu-metodoaren bi osoko-bilkuretara joatea beharrezkoa izango da, eta ebaluazio jarraituko taldearentzako ezarritako egunetan egingo dira. Horrela, azken ebaluazioko sistema hautatzen duten ikasleek ebaluazio jarraituko taldekoek bezala egiaztatu ahal izango dute gaitasunak lortu izana.

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1 / ZG	IE1, IE2, IE3 / IE8	Eskola teorikoak, ikasgelako praktikak, mintegiak	Banakako lana: portafolioa Jarduerak entregatzea (1. gai-unitatea)	% 30 + % 10 ZG
G2	IE4, IE5	Eskola teorikoak, ikasgelako praktikak	Proba idatzia: paradigmak; zientzia eta erizaintzako diziplina; erizaintzako teoriak Jarduerak entregatzea (2. gai-unitatea)	% 40
G3	IE6, IE7, IE9	Eskola teorikoak, mintegiak	Banakako edo talde lana: kasu-metodoaren txostena Osoko-bilkuretan parte hartzea (3. gai-unitatea)	% 20

Azken kalifikazioa lortzeko beharrezkoa da gaitasunei (espezifikoak eta zeharkakoa) atxikitako jarduera guztiak 5 edo nota altuagoarekin gainditzea.

Azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

Salbuespen gisa, ikasleek 1. unitateko portafolioa ebaluazio jarraiturako planifikatutako egunetan entregatu ahal izango dute; horretarako, ikasle bakoitzak irakasle arduradunari jakinarazi beharko dio posta elektronikoz. Hala ere, gogoan izan behar da behin 1. unitateko portafolioa aurkeztuta, ikasleak ez badu 2. unitateko azterketa egiten, irakasgaiaren amaierako notan ez gainditua agertuko da, deialdi bat agortuz.

### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA**

Ezohiko deialdiaren bidez, ikasleek ohiko deialdian gainditu ez dituzten probak gainditu ahal izango dituzte. Ohiko deialdian gainditutako proben kalifikazioak gordeko zaizkie, bai ebaluazio jarraituko ikasleei bai azken proba hautatu dutenei. Ohiko deialdian erabilitako irizpide berak erabiliko dira.

Deialdiari uko egiteko nahikoa izango da hartara ez aurkeztea.

Azken kalifikazioa ez-gai bada, kalifikazio partzialak ez dira hurrengo ikasturterako gordeko.

## INFORMAZIO-ITURRIAK

### Oinarrizko bibliografia

- \* Alfaro-Lefevre R. Pensamiento Crítico, razonamiento clínico y juicio clínico en enfermería. Un enfoque práctico. 7. ed. Bartzelona: Elsevier; 2021.
- \* Barajas C, Hijós LA. Percepción de los pacientes sobre la calidad de los cuidados de enfermería en el entorno hospitalario. Metas enferm. 2018; 21(4):5-9.
- \* Cabrera V. Análisis de las noticias sobre enfermería en prensa española. Metas enferm. 2019; 22(4):5-9.
- \* Consejo General de Enfermería. Código Deontológico de la Enfermería Española. Madrid: Consejo General de Colegios Oficiales de Diplomados en Enfermería; 1998.
- \* 147/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena. EHAA, 146. zk., 2015eko abuztuaren 4a, asteartea. Erabilgarri <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2015/08/1503424e.pdf>
- \* Emanuel E, Emanuel L. Cuatro modelos de relación médico-paciente. Hemen: Couceiro A. Bioética para clínicos. Madrid: Triacastela; 1999. 109-26 o.
- \* Fernández S, Ramos AJ. Comunicación, imagen social y visibilidad de los cuidados de enfermería. ENE. 2013; 7(1):1-10.
- \* García AM, Sainz A, Botella M. La Enfermería vista desde el género. Index enferm. [Internet]. 2004 [kontsulta, 2024 maiatzak 17]; 13(46):45-8. doi: [10.4321/S1132-12962004000200009](https://doi.org/10.4321/S1132-12962004000200009)
- \* González A. La autonomía del paciente con enfermedades crónicas: De paciente pasivo a paciente activo. Enferm Clin. 2014; 24(1):67-73.
- \* Jovell A, Navarro MD, Fernández L, Blancafort S. Nuevo rol del paciente en el sistema sanitario. Aten. prim. 2006; 38 (3):234-7.
- \* Lorente E. Acompañar en el proceso de morir: un hermoso regalo. Metas enferm. 2008; 11(4): 68-70.
- \* Martínez ML, Chamorro E. Historia de la Enfermería. 4. ed. Bartzelona: Elsevier; 2023.
- \* Martínez Y, Germán C, Amezcua M. Caracterización de las escuelas de Ayudantes Técnicos Sanitarios en España entre 1953 y 1980. Metas enferm. 2017; 20(4):69-74.
- \* Moreno MG, Interrial MG. Percepción del paciente acerca de su bienestar durante la hospitalización. Index enferm. 2012; 21(4): 185-9.
- \* Navarro E. ¿Quién cuida al que cuida? Metas enferm. 2008; 11(2):21-5.
- \* Picón-Santamaría A, Ballesteros-Peña S. Una historia sobre el viaje de la persona cuidadora del paciente crónico. [Internet]. Enfermería Activa del Siglo XXI: blog abierto; 30 de octubre de 2023 [kontsulta, 2024 maiatzak 17]. Erabilgarri: <https://www.enfermeriaactiva.com/una-historia-sobre-el-viaje/>
- \* Picón-Santamaría A, Ballesteros-Peña S. La experiencia de la persona cuidadora no profesional del paciente con enfermedad crónica: un estudio observacional. Gerokomos. 2023;34(3):164-7. Erabilgarri: <https://gerokomos.com/wp-content/uploads/2023/10/34-3-2023-164.pdf>
- \* Pont E. Visiones desde la enfermedad. Metas enferm. 2006; 9(5):10-5.
- \* Raile-Alligood M. Modelos y teorías en enfermería. 10. ed. Bartzelona: Elsevier; 2022.
- \* Recuero M, Gómez R, Hernández CI, Muñoz S. Imagen social de las enfermeras: percepción de los futuros periodistas. Metas enferm. 2014; 17(6):64-9.

- \* Registered Nurses Association of Ontario (RNAO). Cuidados centrados en la persona y familia. Toronto: RNAO; 2015.
- \* Ruiz de Alegría B, Ulibarri A. Irakasgai honetarako osatutako argitaragabeko dokumentuak: Osasuna-Gaixotasuna. Gaixotasunarekin bizitzea eta aurre-egite prozesua. Erizaintza lanbide. Pentsamendu korronte nagusiak erizaintzan: Paradigmak. Zientzia: ezagutza zientifikoa osatzea. Iturri teorikoak. Gasteizko Erizaintza Eskola; 2010.
- \* Ruiz de Alegría B. Cuidar a un paciente, entre el estímulo y el respeto [monografía Internet-en]. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); 2011 [kontsulta, 2024 maiatzak 17]]. Erabilgarri: <https://addi.ehu.es/handle/10810/23333>
- \* Ruiz de Alegría B. Vivir en diálisis: afrontamiento y calidad de vida. III. kapitulua Estrategias de afrontamiento [Tesi doktoral]. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU); 2010.
- \* Santo Tomás M. Desde los años cincuenta, nuevos planteamientos. Hemen: Fernández C, Garrido M, Santo Tomás M, Serramo MD. Enfermería Fundamental. Bartzelona: Masson; 1995. 96-100 o.
- \* Vélez E. Investigación en Enfermería, fundamento de la disciplina. Adm. sanit. 2009; 7(2):341-56.

### **Sakontzeko bibliografia**

- \* Allué M. Perder la Piel. Una trágica experiencia y una heroica recuperación. Bartzelona: Planeta; 1996.
- \* Bengoa R, Nuño R. Curar y Cuidar. Innovación en la gestión de enfermedades crónicas: una guía práctica para avanzar. Bartzelona: Elsevier Masson; 2008.
- \* Elorza MI, Huitzi JX. Erizaintzako zientzia eta diziplina. Bilbao: UPV/EHUko argitalpen zerbitzua; 2017. Erabilgarri: <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/listaproductos.asp?IdProducts=UCH00176898&titulo=Erizaintzako%20zientzia%20eta%20diziplina>
- \* Fernández C. Enfermería Fundamental. Masson: Bartzelona; 1995.
- \* Gonzalez C, Martínez F. La transformación de la enfermería. Nuevas miradas para la historia. Granada: Comares; 2010.
- \* Henderson V. La Naturaleza de la enfermería: reflexiones 25 años después. Madril: McGraw-Hill Interamericana; 1994.
- \* Kérouac S, Pepin J, Ducharme F, Duquette A, Major F. El pensamiento enfermero. Bartzelona: Masson; 2007.
- \* Luis MT, Fernández C, Navarro MV. De la teoría a la práctica. El pensamiento de Virginia Henderson en el siglo XXI. Bartzelona: Masson; 2005.
- \* McKenna H. Ways of knowing. Hemen: McKenna H. Nursing Theories and Models. London: Routledge; 1997. 24-54. o.
- \* Nightingale F. Notas sobre Enfermería. Qué es y qué no es. Bartzelona: Masson-Salvat; 1990.
- \* Riehl-Sisca J. Modelos Conceptuales de Enfermería. Bartzelona: Doyma; 1992.

### **Filmak eta bideoak**

- \* Zuzendaria: Tom Shadyac. Gidoia: Steve Oedekerk. Patch Adams. 1998.



- \* Zuzendaria: Julian Schnabel. Gidoia: Ronald Harwood (Liburua: Jean-Dominique Bauby). Le scaphandre et le papillon (Eskafandra eta tximeleta) 2007.
- \* Zuzendaria: Mike Nichols. Gidoia: Margaret Edson eta Emma Thompson. Wit (Bizitza maitatzea). 2001.
- \* Zuzendaria: Randa Haines. Gidoia: Robert Caswell (Liburua: Rosenbaum arg.). The doctor (Sendagilea). 1991.
- \* TVE. Informe semanal. Documental vivir sin límites. 2010/03/20. Erabilgarri:  
<http://www.rtve.es/alicarta/videos/informe-semanal/informe-semanal-vivir-sin-limites/724900/>
- \* Chus Gutiérrez (Diario de Manuel).
- \* Roser Aguilar (Clara no lo esperaba).

### Helbide elektronikoko interesgarriak

- \* *Hiades Revista de Historia de la Enfermería* (<http://www.portalhiades.com/>)
- \* *Infermera Virtual* (<https://www.cuidando.org/infermera-virtual/>)
- \* *Nursing History Review* (<https://connect.springerpub.com/content/sgnrhr>)
- \* *Cultura de los cuidados* aldizkaria (<https://culturacuidados.ua.es/>)
- \* *Index de Enfermería* aldizkaria (<http://www.index-f.com/index-enfermeria/revista.php>)

## OHARRAK

**2018ko maiatzaren 24ko UPV/EHUko Graduko Batzordeko akordioaren arabera, irakasgai hau gainditzeko aurrebaldintza da 4. ikasturteko Praktikumetan matrikulatzea.**

Irakasgaiaren hasieran matrikulatutako ikasle bakoitzak, dela ebaluazio jarraituaren modalitatean dela azken ebaluazioarenean, eGela plataformaren bidez honako hauek izango ditu eskura:

- Irakasgaiaren inguruan informatzeko dokumentazioa: irakaskuntza-gida, ikaslearen gida, egin beharreko saioen kronograma.
- Irakasteko materiala: gai-unitate bakoitzak irakasleek prestatutako dokumentazioa eta materiala izango du lagun.
- Orientatzeko dokumentazioa: jarduera-mota bakoitzerako ikasle bakoitzak jarduera horiek egitean lagunduko dion informazioa izango du eskura.
- Ebaluazio jarraiturako sarbidea: ikasle bakoitzaren konfidentzialtasunari eutsiz, ikasle bakoitza ebaluazio-jardueretan hark lortutako kalifikazioetara sartu ahal izango da. Jarduerak ikasketari buruzko irakasleen berrelikadura izango dute lagun.

Material eta informazio hori guztia lagungarria izango da gaitasunak lortzeko eta ebaluazio-jarduerak gainditzeko.

## TUTORETZAK

Irakasgaiko irakasleekin tutoretza-saioak eskatzeko mezu elektronikoko bat bidali behar zaio irakasgaiaren arduradunari: [eva.pereda@ehu.eus](mailto:eva.pereda@ehu.eus). Edonola ere, tutoretzak 3-4 ikasleko taldeetan eskatzen saiatuko dira ikasleak. Tutoretza-saioen xedea ez da huts egindako eskola presentzialak ordezkatzea.